

IRUZURGILE... ETA HARRO!

Kenneth Goldsmith, poeta kontzeptuala
eta idazketa ez-sortzailearen gurutza

 ARTEA / Mikel Zubimendi Berastegi

Oso autore polemikoa da Kenneth Goldsmith. Andy Warholek nabarmen eragin ditu bere pentsamendua eta obra. Urre koloreko jantzi eta kapela irrigarriekin artista estetikoki bitxia da. Plagioa eta begi bistakoa denaren edertasuna aldarrikatzen ditu. Bere poesia kontzeptuala da, irakurri behar ez dena, eta, Internet, poeten utopia berria.

Absurdoa akuilu duen bulkada batek bultzatzen ditu Kenneth Goldsmithen (Freeport, New York, 1961) sortze lan gehienak. Dozena bat luze entsegu eta poesia libururen autorea da. Baita Ubuweb abangoardiazko artearen artxibo digital handienaren sortzaile eta arduraduna ere.

Arte erraza aldarrikatzen du eta gauzak erraz egitea zailtasun berria dela dio. Erraza ez dela erraz, esfortzu handia es-

katzen duela. Erraztasunaren azken xedea izpiritua dela, eta, errazaren utopia berria, Internet. Etorkizuneko artistak konfort totala eskainiko duten artelanak egingo dituela dio; sexu ona bezain intimoak. Hartara, plagioa estrategia artistiko egokitzat dauka.

Goldsmithek ez du irakurle-rik. Kasurik onenean, pentsa-riak ditu, bere literatura kon-zeptuala eta irakurtezina delako. Bere hitzetan, bere libu-ruak “ezin txarragoak” dira, lite-raturaren lekuaz eta funtzioaz hausnartzeko bitartekoak. Izan

ere, nork irakur lezake aste batean zehar autoreak esan dituen hitz guztien erregistroa den “Soliloquio” liburutzarra? Nork hilabete batean zehar irratiri batean eskainitako eguraldi edo trafikoko iragarpenen transkripzioa baino ez dena? Nork basakeria polizialak hildako Michael Brown gaztearen autopsiaren txostena liburu batean?


INTERNETEN DENBORA GALDU

“Idazketa ez-sortzailea” entse-
guan biltzen ditu ideiak, beste-
ak beste. Titulu horrekin ema-
ten ditu literatur eskolak
Pennsylvaniako Unibertsitate-
an. Plagiatzen, kopiatzen ez ba-
du, ikaslea zigortzen du. Idaz-
ten irakatsi baino, modu berri
eta ezberdin batean pentsatzen
laguntzea da bere eskolen hel-
burua. Bere irakasgaiaren izena
bera oso adierazgarria da: “Nola
galdu denbora Interneten”.
Ikasleak esperimentatzera gon-
bidatzen ditu, *online* ahalik eta
denbora gehien pasatzera, ko-
munikatzeko, harremanetara-
ko eta sortzeko ahalik eta auke-

ra gehien esploratzera. Izan ere, berarentzat, denbora galtzea betidanik izan da artistaren egiteko behinena, bereziki Interneten; denbora galtzea dela uste den hori, egiazki, oso produktiboa eta sortzailea omen.

Sarean denbora galtzea, bate-tik bestera nabigatzea, inspirazio artistikoaren iturri du. Ez da ezkututzen, gainera. Goldsmithentzat plagioa estrategia sortzailea da, guztiz zilegia. Sor-kuntzaren kontrako ideiak sarri bota ditu, adierazpen desonestoak, azpikeria izugarriak egin ditu. Eta, are, publikoki aldarrikatzen du bereak ez ziren gauzak lapurtu dituela bere karrera artistikoan, estrategia bezala ikasleei hori egitea gomendatzen diela. Artista bat originala izatea nahi izatea baino gauza ez originalagorik ez dagoela dio; horregatik, egile eskubideen kontra jardun du betidanik, ar-txiboak nahieran elkarbanatze-aren alde eginez, kultura libre baten alde. Poeta harro iruzur-giletzat jotzen du bere burua, ait-zakiarik gabe. Bere testuingu-

**Argazkiotan, Kenneth
Goldsmith poeta kontzeptual
eta polemista azaltzen da.**
GAUR8



rutik ateratako testu batek, giro berri batean jartzean, artelan guztiz ezberdin bat sortzen duela defendatzen du irmo.

Internet eta sare sozialak sor-kuntzaren berpizkunde baten fenomenotzat ditu, poesia bere potentzialtasun osoa askatu ahal izateko itxaroten ari zen bitartekoak. Internet mundu errearen ispilutzat du, eta, hala, poema on bat egiazki on bada, ez duela axola non argitaratzen den dio, paperean ala pantailan. Originaltasuna, erritmoa, doinua ez ditu kezka artistiko; are, ez du bere burua poeta edo idazletzat, hitz-prozesadoretzat baizik.

Hizkuntza digitalaren sorreraz mintzo da eta Internet inoiz idatzi den poema handiena dela defendatzen du: «Denok uste genuen mundua inperio bisual bilakatu behar zela, irudiz betetako leku, baina, gure inguruan begiratzen badugu, idazteari, irakurtzeari, testu mezuak bidaltzeari uzten ez dion jendea baino ez dugu ikusiko. Inork inoiz amestu gabeko hizkuntzaren aro batean bizi gara».

HIZKUNTZA MATERIALIZATUA

Argazkilaritzaren etorrerak margolarientzat desafio handia suposatu zuen legez, Internetek erronka bera planteatzen die egungo idazleei. Aurrekari gabeko testu kopurua uzten du haien esku, baita bertan esku hartu eta testuok manipulatze-ko teknika berriak ere, eta horrek “originaltasuna”, “idazketa” eta “egiletza” bezalako kontzeptuen inguruko ideia tradizionalak birpentsatzera eramaten gaitu. Goldsmithek argi du: aro digitalean, hizkuntzaren materialtasun berri batekin batera, informazioaren kudeaketa informazio berri eta originala sortzea baino garrantzitsuagoa bihurtu da, eta, hor-



Goldsmithen liburuak guztiz irakurtezinak dira, literaturaren lekuaz eta funtzioaz hausnartzeko bitartekoak

Originaltasuna, erritmoa, doinua ez ditu kezka artistiko; are, ez du bere burua poeta edo idazletzat, hitz-prozesadoretzat baizik

Aro digitalean, informazioaren kudeaketa informazio berria sortzea baino garrantzitsuagoa bihurtu dela dio, eta, hortaz, etorkizunean, idazle onenak informazio kudeatzaile onenak izango direla

taz, etorkizunean, idazle onenak informazio kudeatzaile onenak izango dira.

Adierazkortasunaren kontra dago, bere poesia kontzeptuala da, irakurri behar ez den horietakoa. Irakurri ezin diren bere liburu-eto-ko piezetan ideia bat, kontzeptu bat ezkututzen dela jakin behar da, ez besterik. Ideiak, ideien gauzape- gutxi horiek baino, edo ideiak irakurtzea baino, interesgarriago- zat eta erradikalago- zat dituelako.

Internet erronka da idazketaren nozio tradizionalarentzat. Aro digitalean, hizkuntza, hau da, kodea, materializatu egin delako, dimentsio berri bat hartuz. Hitzak jada ez dira istorio- ak kontatzeko. Hizkuntza edo- zein edukiontzitara jaurti daiteke: Microsoft Wordeko tes- tu bat izan daiteke, edo datu base bat, edo Photoshopekin bisualki eraldatutako eduki bat, edo Flash erabilia animatuta- koa, soinu ere egin daiteke, mi- laka pertsonengana bidali sare sozialen bidez... Aukerak muga- gabeak dira. Idazmakina jo eta jo ari den sortzaile jenialaren ideiatik urrun da Goldsmith.

PENTSATZEKO LIBURUAK

John Cage konpositore eta filo- sofoak aspaldi esan zuen bi mi- nutu pasatuta zerbait asperga- rria baldin bada, lau minutuz saiatzeko. Eta aspergarria iza- ten jarraitzen badu, zortzi mi- nutuz. Eta gero hamaseiz, eta hogeita hamabiz... Izan ere, az- kenean, inolaz ere aspergarria ez dela deskubritzen da.

Zer da aspergarria izatea? Goldsmithentzat, adibidez, nar- ratiba guztiz aspergarria da. Bere liburuak irakurtzeko ez da gai, lo geratzen da. Berak aitortua da liburu irakurrie- zinak egi- ten dituela. Hori bai, ezin ukatu aproposak ez direnik haiez hitz egiteko eta pentsatzeko...